

ORIOKO EUSKARA-PLANA 2022-2032



AURKIBIDEA

Sarrera	05
Ikuspegi orokorra	06
Datu demografikoak	07
Euskararen ezagutza Orion	09
Euskararen erabilera Orion	12
Arloz arloko azterketa	14
Familia bidezko transmisioa	15
Irakaskuntza	18
Euskalduntze-alfabetatzea	22
Administrazioa	25
Arlo sozioekonomikoa	27
Aisialdia	34
Kirola	36
Kulturgintza	44
Corpus-plangintza	46
Hedabideak eta IKTak	48
Sentsibilizazioa eta motibazioa	51
Jardueren kronograma	53

SARRERA

Orioko Udalak aldiro berritzen du herriko euskara-plana, unean uneko egoera eta zirkunstantzietara egokitzeko. Zer da «euskara-plan» bat? Ba, hitz gutxitan esanda, hauxe: **datozen urteotan Udalak euskararen arloan zein lehentasun izango dituen eta zer egin nahi duen markatzen duen dokumentua, herriko eragileekin prestatua eta adostua.**

Euskararen egoera aldakorra da ezinbestean eta, beraz, komeni da etengabe nola gauden aztertzea eta gaiari buruz gogoeta egitea, Udalak aplikatu beharreko politikak eta hartu beharreko neurriak zehazteko eta, hartara, garai bakoitzeko premiei ahalik eta ondoen erantzuteko.

Azken urteotan aldaketa garrantzizkoak gertatu dira, euskararen munduan: administrazioaren eta euskaigintzaren arteko adostasun berriak, Euskaraldia, hizkuntza-teknologietan egindako aurrerapenak, ikus-entzunezkoen arloan

izandako aldaketak, EAEko Udal Legearen eta hori garatzen duen dekretuaren onarpena, udalerri euskaldunen garrantziaren aitortzea, euskararen kaleko erabilerak hartu duen beheranzko joera, bizimodua aldrebestu digun pandemia... Euskarari dagokionez, **fase-aldaketa** batean gaudela uste dute euskalgintzako eragileek: **aurreko fasea agortu da, eta une egokia da gogoeta egin, indarrak bildu eta aurrerapauso sendoak emateko**. Jon Sarasuak esana da, orain dela gutxi: «Asko egin dugu, eta osatu dugun bidea eredu da hemendik kanpo; baina, orain arte egin duguna eginez, ez dugu aurreratuko».

Orion ere irakurketa bera egin daiteke: asko aurreratu dugu arlo batzuetan, baina bidean erronka berriak agertu zaizkigu: aldaketa demografikoen eraginari buelta ematea, garapen urbanistikoak euskararen osasunean sortutako ajeak, oriotar berrien hizkuntza-integrazioa, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa, ikastetxeen zailtasunak ikasle batzuk euskaldun aktibo bihurtzeko, erabilerari eusteko zailtasunak bereziki eremu informaletan, herritarren kontzientziazioan etengabe eragin beharra...

Erronka berriei aurre egiteko, **geldialdi bat egin eta aurrerantzean zein bide hartu hausnartu dugu Orion, gogoeta kolektibo baten bidez**. Badakigu euskara biziberritzeko partida Euskal Herri osoan jokatzeko dela eta partidaren azken emaitzan eragingo duten faktore asko eta asko gure eragin-eremutik kanpo daudela; baina sinetsita gaude arnasguneetako euskaldunok paper garrantzizkoa jokatu dezakegula partida horretan, jokaldi eder batzuk eginez eta irabaz dezakegula irudikatuz.

Gogoeta kolektibo hori 2021eko udazken-neguan egin dugu, herriko talde eta norbanako ugarirekin batera. Lau lantalde osatu ditugu, estrategikoak iruditzen zaizkigun arlo hauetan: kirola, hezkuntza, merkataritza eta sentsibilizazioa. Arlo bakoitzeko herriko eragileek hartu dute parte lantaldeetan eta lantalde bakoitzak hiru bilera egin ditu, 2021eko urritik 2022ko otsailera:

Lehen, egitasmoa azaldu eta egoeraren diagnostiko konpartitua egiteko.

Bigarren, diagnostikoa azaldu, 10 urterako helburuak finkatu eta helburu horiek lortzeko ekintzak proposatzeko.

Hirugarren, lantaldeak egindako lanaren emaitza aurkeztu, findu eta osatzeko.

Bileretan xehe-xehe aztertu dugu euskararen gaur egungo egoera, arloz arlo, eta egoera hori hobetzeko proposamenak landu ditugu. Arlo guztietan dago zer hobetu eta proposamen berri ugari bildu ditugu lantaldeen bileretan eta prestatutako galdetegien bidez. Proposamen horiekin elikatu dugu Euskara Plan hau eta eskertzekoa da, benetan, lan-bileretan parte hartu duten herritarren prestutasuna eta laguntza.

Egin dugun **gogoeta kolektiboak** balio izan digu, besteak beste, identifikatzeko non ditugun zailtasunak, zein arlotan eragin beharko genukeen, lehentasunez, Orioko euskararen egoera hobetzeko. Gaur egun, hiru gai hauetan eragitea da lehentasuna:

- Hizkuntzaren eta hizkuntza-joeren transmisioa haurrei.
- Kirol-mundua euskalduntzea.
- Herritar euskaldunen sentsibilizazioa eta motibazioa lantzea.

Zailtasunak zailtasun, Orion abiapuntu ezin hobea dugu **euskara sustatzeko politika ausartak** egiteko eta horri ekin behar diogu modu kolektiboan. Lan-bileretan ikusi dugu badagoela gogoeta eta bultzada, orain arte egin izan dugunaz gain, ekimen berri indartsuak abiatzeko eta **salto bat aurrera egiteko**.



IKUSPEGI OROKORRA

DATU DEMOGRAFIKOAK

Orion 6.096 lagun bizi dira (2021eko urtarrileko datu ofiziala). Urola Kostako eskualdean kokatuta dago. 11 udalerrrik osatzen dute eskualdea: Orio, Aia, Zarautz, Getaria, Zumaia, Aizarnazabal, Zestoa, Azkoitia, Azpeitia, Errezil eta Beizama. Eskualdeko biztanleen bi heren Azpeitian, Azkoitian eta Zarautzen bizi dira.



Biztanle-kopuruaren eboluzioa

Eskualdeko beste herri gehienek bezala, garapen urbanistikoak bultzatuta, Oriok biztanleak irabazi ditu, bereziki azken urteotan: 4.389 biztanle zituen 2000. urtean eta, gaur egun, 6.096 biztanlekoa da azken datu ofiziala.

Ikusi hemen eboluzioaren taula:

URTEA	BIZTANLEAK	URTEA	BIZTANLEAK	URTEA	BIZTANLEAK	URTEA	BIZTANLEAK
2021	6.096	2015	5.805	2000	4.389	1940	2.065
2020	6.132	2014	5.694	1990	4.316	1930	1.926
2019	6.022	2013	5.524	1981	4.358	1920	1.773
2018	5.948	2012	5.382	1970	3.893	1910	1.449
2017	5.857	2011	5.270	1960	2.890	1900	1.268
2016	5.851	2010	5.147	1950	2.374		

Hona hemen beste datu batzuk, herriaren argazkia egiteko baliagarri izan daitezkeenak:

ORIO	URTEA	
Biztanleria	2020	6.132
Biztanle-dentsitatea: Bizt/Km ²	2020	632,16
Azalera: Ha	2014	966
65 urte eta gehiagoko biztanleria: %	2020	16,75
Atzerrian jaiotako biztanleria: %	2020	10,5
Goi-mailako ikasketadunak: %	2019	16,49
Euskaldunak: %	2016	76,68
Langabezia tasa: %	2019	9,5
Enplegua establezimenduetan	2019	1.146
Zoru urbaniza ezina: Udalerraren azaleraren %	2014	84,47
Familia-etxebizitzak: Batzbesteko azalera: m ²	2019	92,5
Biztanleko BPGa: Euroak	2017	17.206,70
Udal BPG: Euskadi=100	2017	50,5
Jarduera ekonomikoa. Industria: BEGaren %	2017	3,8
Jarduera ekonomikoa. Zerbitzuak: BEGaren %	2017	75,9
Jarduera ekonomikoa	2017	12,6
Jarduera ekonomikoa. Lehen sektorea BEGaren %	2017	7,8
Errenta pertsonala. 18 urtez gorakoak: Euroak	2017	18.455

Iturria: EUSTAT


EUSKARAREN EZAGUTZA ORION

HIZKUNTZA-GAITASUNA, 2016


Orion euskaldunak dira nagusi; **hamar lagunetik ia zortzi euskaldunak dira** (%77); oster, %14 erdalduna da eta ia euskaldunen ehunekoa, berriz, %9koa da.

Bilakaerari dagokionez, **euskaldunen ehunekoak behera egin du azken urteotan**: %80koa zen 2001ean eta %77koa gaur egun. Erdaldun elebakarren ehunekoa, berriz, handitu egin da: %8 ziren 2001ean eta %14 dira orain.

Hau izan da euskaldun-ehunekoaren eboluzioa azken urteetan (Orio 2016):



Euskararen ezagutzaren bilakaera Orion:




HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA

Euskal Herriko toki askotan bezala gertatzen da Orion ere: herritar gazteenak dira euskaldunenak.

Kontuan hartuta hezkuntza-sistemak guztiz euskaraz funtzionatzen duela herrian eta, beraz, haur eta gaztetxo guztiek ikasten dutela euskara, ez da harritzekoa adin-talde hori izatea guztietan euskaldunena: **14 urte arteko haur eta gaztetxoen artean %1,92 baizik ez da euskaraz ez dakiena.**

Gazteen artean (15-34 urte) egoera aldatu egiten da, adin-tarte horretan jende-multzo garrantzizko bat dagoelako Orion eskolatu ez dena eta euskaraz ez dakiena: %17,08.

Eustatek dituen Orioko adin-taldekako euskara-gaitasunari buruzko azken datu ofizialak 2016koak dira. Hona hemen:



Dagoeneko hiru hamarkada baino gehiago da Orioko haur guztiak euskaraz eskolatzen direla eta, beraz, eskola-ibilbidea euskaldun amaitzen dutela, baina horrek ez du ekarri euskaldunen portzentajeak handitzea, tartean **migrazio-mugimenduak** ere egon direlako: ikusi dugun bezala Oriok 4.316 biztanle zituen 1990ean eta 6.096 ditu gaur egun. Hazkunde hori, neurri handi batean, garapen urbanistikoari zor zaio, Oriora kanpotik jendea etortzea ahalbidetu duelako.

Gaur egun, **atzerrian jaioetako oriotarren portzentajea %10ekoa da**, eta erronka zaila da horien hizkuntza bidezko integrazioa.



EUSKARAREN EZAGUTZA ORION



Orioko bizilagun gehienak euskaldunak dira: hamar lagunetik, ia zortzi.

Azken urteotan jaitsi egin da Orioko euskaldunen portzentajea

Herriko euskaldun gehienek etxean ikasi dute euskara eta ahozko hizkuntza-maila ona dute.

Garapen urbanistikoak Oriotik kanpoko jende ugari ekarri du gure herrira bizitzera eta, oro har, bizilagun berri horiek jatorrizko oriotarrak baino erdaldunagoak dira.

Adin-tarte guztietan dira nagusi euskaldunak.

Atzerrian jaioetako bizilagunen portzentajea %10ekoa da eta horien hizkuntza-integrazioa erronka handia da.

Urola Kosta eskualdea Euskal Herriko euskaldunenetako bat da eta horrek herrien arteko sinergiak sortzeko aukera ematen du.

EUSKARAREN ERABILERA ORION

Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuak euskararen erabileraren kale-neurketak egiten ditu maiztasun finko batekin (urtero, lehen; bi urtetik behin, 1999az geroztik). Horrek kaleko erabilera errealearen adierazle bat ematen digu. Neurketa beti urte garai berean egiten da, toki eta ordu jakinetan, urtez urteko datuen konparagarritasuna bermatzeko.

Kale-neurketako datuak oso baliagarriak dira jakiteko euskararen erabilera zertan den une jakin batean, eta, batez ere, ikusi ahal izateko erabileraren eboluzioa nolakoa den urtez urte.

Haurren eta gazteen kasuan, Orion, datuek goranzko joera garbia izan dute segida historikoan, baina, **azken neurketetan, goranzko joera hori gelditu egin dela ematen du eta jaitsiera bat ere izan da 2021eko neurketan**: txikia, haurren kasuan, baina nabarmenagoa gazteenean. Hori, bestalde, bat dator bi ikastetxeetatik jasotzen dugun pertzepzio eta kezkearekin: esaten digute azken urteotan gero eta gehiago kostatzen zaiela zenbait adin-taldetako haur eta gaztetxoek euskararen ahozko erabilerari eustea. Arretaz erreparatu behar zaio joera horri.


Helduen erabilerak joera gorabeheratsuagoa izan du azken urteotan: urte batzuetan beheranzko joera hartu ondoren, erabilera nabarmen igo zen 2019ko azken neurketan, hain zuzen Euskaraldia eta gero egindako aurrenekoan, baina erabilera lehengo parametroetara bueltatu da pandemia betean egindako 2021eko neurketan.

Hauek dira 2021eko neurketaren emaitza nagusiak:

EUSKARAREN ERABILERA ORION	
HAURRAK	% 86
GAZTEAK	% 71
HELDUAK	% 53
ZAHARRAK	% 55
GUZTIRA	% 62

Nolanahi ere, azken datuek erakusten dute **euskararen erabilera nahiko sendo dagoela Orion**, nahiz eta baduen hobetzeko tarteak. Herriak izan duen hazkunde demografikoa kontuan hartuta, ondo eutsi dio, oro har, euskararen kaleko erabilerari.

Grafiko eta taula hauetan ikusi daiteke **euskararen erabileraren eboluzioa Orion**, azken 30 urteotan:



ERABILERA



Kaleko erabilerak baditu gorabeherak, baina, oro har, ez da askorik aldatu azken urteotan, nahiz eta herria handitu eta biztanle-kopurua gehitu.

Kaleko erabileraren datuek erakusten dute haur eta gazteen artean beheranzko joera txiki bat dagoela azken bi neurketetan, nahiz eta oraindik erabilera oso altua den.

Haurren eta gazteen erabilera-datuak oso handiak dira konparatzen baditugu Euskal Herriko datuekin eta, baita ere, inguruko herrietakoekin.

Helduen erabilerak gora egin zuen Euskaraldiaren osteko neurketan, 2019an, baina lehengo parametroetara itzuli da 2021lekoan.



**ARLOZ
ARLOKO
AZTERKETA**



FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

GAUR EGUNGO EGOERA

Eskura ditugun azken datu ofizialen arabera (2016), **oriotar gehienek familia bidez jasotzen dute euskara oraindik**. Hala ere, datuok erakusten dute azken urteotan galera gertatu dela hor eta, gaur egun, oriotar askoren etxeko hizkuntza gaztelania dela (bakarrik edo euskararekin batera).

Galera oso nabarmena da: 1991n euskara zen etxeko hizkuntza oriotarren %73rentzat. 2016an, berriz, %49rentzat bakarrik.

Gaztelania, berriz, oriotarren %18rentzat zen etxeko hizkuntza 1991n. 2016an, ostera, %31rentzat.

ETXEKO HIZKUNTZA ORION (2016)	
EUSKARA	% 49
GAZTELANIA	% 31
BIAK	% 17
BESTE BAT	% 3

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak



Nabarmentzekoa da, baita ere, etxean euskara edo gaztelania ez den hizkuntzaren bat hitz egiten dutenen portzentajea handitu egin dela Orion azken urteotan: %1ekoa zen 1991n eta %3koa da gaur egun. Euskara Zerbitzuak 2015ean egindako azterketaren arabera, **Orion 30 hizkuntzatik gora hitz egiten dira gaur egun**, munduko toki askotakoak: arabiera, amazigera, frantsesa, wolofera, ingelesa, errumaniera, katalana, urdua... Hizkuntza-errealitatea aldatu eta aberastu egin da:

ETXEKO HIZKUNTZAREN EBOLUZIOA ORION (1991 - 2016)						
	1991	1996	2001	2006	2011	2016
EUSKARA	% 73	% 63	% 60	% 53	% 52	% 49
GAZTELANIA	% 18	% 18	% 21	% 26	% 31	% 31
BIAK	% 9	% 18	% 17	% 21	% 15	% 17
BESTE BAT	% 1	% 1	% 1	% 1	% 2	% 3

Udaleko Euskara Zerbitzuak galdetegi bat prestatu zuen 2014an, gurasoen hizkuntza-ohiturei buruz eta bi ikastetxeetako LH4, LH5 eta LH6ko guraso eta haurrek erantzun zuten. Galdetegi hark pista ugari eman zizkigun etxeko hizkuntzari buruz eta etxeko hizkuntza-joerei buruz:

- Hizkuntzaren transmisioa nahiko ondo bideratuta dago Orioko familietan: **euskaraz dakiten gurasoek, ia erabat, euskaraz egiten diete seme-alabei.** Familia mistoetan ere (guraso bat euskalduna, bestea ez), euskaraz dakien gurasoak euskaraz egiten die haurrei ia beti. Hau datu positiboa da.
- Kontuan hartuta familia mistoen portzentajea handi samarra dela aztertutako laginean (%36,25), deigarria da anai-arreben arteko euskararen erabilera %88koa dela. **Familia misto gehienetan euskaraz egiten dute anai-arrebek beren artean,** eta familia guztiz erdaldun batzuetan ere bai. Hau ere oso datu positiboa da.
- Bi gurasoen arteko erabilera aztertzerakoan, ikusten dugu **gehiago direla beren artean gaztelaniaz hitz egiten dutenak (%55) euskaraz egiten dutenak baino (%40).** Kontuan hartuta familien %64an bi gurasoak euskaldunak direla, horrek esan nahi du dezente direla beren artean gaztelaniaz egiten duten gurasoak, biek euskaraz jakin arren.
- Berdintsu gertatzen da gurasoei galdetzen zaienean beste gurasoekin zein hizkuntza erabiltzen duten. Euskaraz aritzen direla diotenen portzentajea %53-57 ingurukoa da, nahiz eta ezagutza askoz handiagoa izan (%74-78). Horrek berriro erakusten du euskaldun dezentek ohitura duela lagunartean gaztelaniaz jarduteko.
- Nabarmentzekoa da **euskararen erabilera-indizerik baxuena esparru intimoenean gertatzen dela: kalean baino baxuagoa da etxean.**



TRANSMISIOA



Euskararen transmisioa ondo bideratuta dago, oro har, Orioko familietan: euskaraz dakiten gurasoek, ia erabat, euskaraz egiten diete seme-alabei; eta familia mistoetan ere, ia beti.

Ez da arraroa guraso euskaldunek beren artean gaztelaniaz hitz egitea eta pentsatzekoa da horrek eragina izan dezakeela gero seme-alaben hizkuntza-joeretan.

Kanpotik etorritako gurasoek, oro har, jarrera ona dute euskararekiko eta beren haurrek ondo ikasi dezaten saiatzeko dira.

Guraso askoren euskararekiko sentsibilizazio-falta

Euskaraz eskolatutako haurrak dira orain guraso izateko adinean daudenak; eta horietako askok, Orion, euskara du etxeko hizkuntza

Herriko gero eta etxe gehiagotan euskara ez da eguneroko hizkuntza nagusia.

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

HELBURUAK

1. Etxean euskara erabiltzen duten gurasoen portzentajea handitzea.
2. Guraso gazteen belaunaldia aktibatzea, erabileraren motor izan daitezen.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK

1	«Haur berrien ongietorria» antolatzea urtero eta ekitaldi hori erabiltzea hizkuntzaren gaiari garrantzia emateko.
2	Etxeko erabilerari buruzko datuak sistematikoki jasotzea, bi urtetik behin, ikastetxeen laguntzarekin.
3	Euskarari buruzko hitzaldiak antolatzea Haurreskolako gurasoentzat.
4	Haurreskolan gurasoentzat antolatzen diren jarduerak diruz laguntzea.
5	Ludotekaren eta Gaztelekuaren zerbitzua indartzea.
6	«Oriotarron hizkuntzak» egitasmoa abiatu Karkara aldizkariarekin batera, herrian dagoen hizkuntza-aniztasun berria ikustarazteko.
7	Euskarazko Produktuen Katalogoa banatzea.

IRAKASKUNTZA

GAUR EGUNGO EGOERA

Orion bi ikastetxe daude: Zaragueta Herri Eskola eta Orioko Herri Ikastola. Bai ikastetxe publikoan eta bai Ikastolan, **D eredua baizik ez dago**. Horrez gain, Haurreskolak partzuergoko haur-eskola bat dago, guztiz euskaraz funtzionatzen duena eta 0-2 urte arteko haurrei zerbitzua ematen diena. Orion, Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baino ez da ematen, hau da, 16 urte arteko irakaskuntza baino ez da eskaintzen. Bi ikastetxeetan maila guztiak ematen dira, beti D ereduan.

Eskola-orduz kanpoko jardueren artean, Danbolin musika-eskolarena da garrantzizkoena Orion, duen dimentsioagatik. Udalak kudeatzen du musika-eskola eta euskaraz funtzionatzen du erabat. Herriko haur ugarik hartzen ditu klaseak bertan eta, askorentzat, ikastetxeaz gain, euskararekiko harremana sendotzeko baliabiderik garrantzizkoena da, Txurumuski elkarteak kudeatzen duen Ludotekarekin, Gaztelekuarekin eta aisialdi-eskaintzarekin batera eta kirol-eskaintzarekin batera.


EUSKARAREN EGOERA ORIOKO HEZKUNTZAN

Euskara-plan hau lantzeko Udalak deitutako hezkuntza-eragileen lantaldeak gaur egungo egoeraren diagnostikoa egin du, ikastetxeetako irakasleek betetako galdetegien bidez eta eskolak eta ikastolak propio egindako gogoeten bidez.

Hauek dira diagnostikoaren punturik garrantzizkoenak:


- Orioko hezkuntza-eragileei galdetuz gero ea zer espero duten gertatzea haurren euskara-erabilerarekin datozen hamar urteotan, gehienek (%58,5) uste dute haurrek oraingo tankeran erabiliko dutela euskara; baina **badago portzentaje nabarmen bat (% 37,7), uste duena orain baino euskara gutxiago erabiliko dutela.**

Orokorrean, patioan eta kalean, zer uste duzu gertatuko dela euskararen erabilerari dagokionez datozen hamar urteotan?



- Galdetuz gero, ordea, ea zer gustatuko litzaiekeen gertatzea hemendik hamar urtera, adostasun handia dago: % 88,7ri gustatuko litzaioke haurrek orain baino gehiago erabiltzea euskara eta %9,4ri oraingo tankeran erabiltzea.

Eta, zer gustatuko litzaizuke gertatzea?



- Orokorrean, euskararen **erabilera sustatzen jarraitzearen aldekoa da, erabat, Orioko hezkuntza-eragileen jarrera.**
- Bi ikastetxe nagusietako eragileek kezka erakutsi dute lehen baino gehiago kostatzen zaielako haurren arteko euskarazko jardunari eustea, batez ere ikasgelatik kanpoko harremanetan. Lehen etxean giro euskaldunik ez zeukaten haurrak egokitu egiten ziren ikastetxearen euskarazko martxara; eta orain, berriz, **sarriegi, gaztelania bihurtzen da zubi elkarren arteko komunikaziorako.**
- Azkenik, gero eta zabalduago dago ikasleek darabilten hizkuntzaren **kalitatearen kezka**: hiztegi pobrea, gaztelaniaren interferentziak, gabeziak ahozko erregistro informalean, hikaren erabilera okerra...



IRAKASKUNTZA



D eredua baino ez dago irakasmila guztietan.

Jatorriz euskaraz ez dakiten ikasleen hizkuntza-integrazioarako zailtasunak dituzte ikastetxeetan.

Ikastetxeetan berariaz lantzen da euskararen gaia eta badago horren inguruko kezka eta azpiegitura. Bi ikastetxeek abian dituzte normalizazio-planak eta badauzkate hizkuntza-normalizazioko arduradunak.

Jatorriz euskaraz ez dakiten ikasleak gero eta gehiago dira eta, gainera, ez daude modu proportzionalen banatuta.

Orokorrean, giro euskalduna dago herriko ikastetxeetan. Euskalduna eta euskaltzalea. Irakasle, hezitzaile eta begiraleak euskaraz ari dira lanean eta eredu ona dira ikasleentzat.

Gero eta ohikoagoa da, patioan eta erabilera informalean, gaztelaniaz ari diren taldetxoak sortzea.

Haur askorentzat euskara da beren lehen hizkuntza, ondoen menderatzen dutena, eta horiek, oro har, euskara erabiltzeko ohitura dute.

Gaztelaniaz eta ingelesez baliabide gehiago dago, oro har, eta, bereziki, teknologia berriei dagokienez: bideo-jokoak, sare sozialak, ikus-entzunezkoak...

Material pedagogikoa eta bestelakoa euskaraz dago, gero eta gehiago.

Harrera-plan egoki baten falta.

Udalak eta bi ikastetxeek adostu eta elkarlanean antolatuta, euskara-errefortzua eskaintzen zaie haur etorri berriei, ikasturtean zehar eta uztailan, beren hizkuntza-maila indartzeko eta integrazioa errazteko.

Euskaraz dakiten guraso asko gaztelaniaz komunikatzen dira eta, hartara, eredu eskasa ematen diete seme-alabei. Euskararekiko sentsibilizazio eta konpromiso falta familia batzuen aldetik.

Eskolaz kanpoko jardueretan haurrek badute euskaraz aritzeko aukera.

Haurren gizarte-mailako erreferente nagusiak ez dira euskaldunak.

Haurrentzat herrian eskaintzen diren ekintza guztiak euskaraz izaten dira.

Euskarazko baliabide falta: material pedagogiko batzuk, azalpen-bideoak, liburu erakargarriak.

Musika-eskolan ere ikasketa guztiak euskaraz egin daitezke orain, musika-mintzaira barne (orain gutxi arte ia ez zegoen euskarazko materialik horretarako).

Eskaintzen diren baliabideak ez dira nahiko euskarazko errefortzua behar duten guztien beharrak asetzeko.

Ikasleek gabeziak dituzte ahozko erregistro informalean: hiztegi pobrea, gaztelaniaren interferentziak, hikaren erabilera okerra...

Herriko euskalkiari eta gure euskararen berezitasunei garrantzi gutxi ematen zaie orokorrean.

Euskaraz hitz egitearen aldeko presioa gehiegizkotzat jotzen dute ikasle batzuek eta horrek bizipen negatiboak sortzen dizkie.

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

HELBURUAK

1. Haurren arteko euskararen erabilera informala (patioan eta kalean) %90aren bueltan edo gorago finkatzea.
2. Orioko ikasle guztiak euskal hiztun aktibo izatea DBHa bukatzen dutenean.
3. Hezkuntza-eragileen arteko elkarlana bideratzeko egiturak sortzea.
4. Gurasoen euskararen ezagutza-indizea eta erabilera-indizeak handitzea.
5. Ikasleek, herriko eskola-ibilbidea bukatutakoan, ondo ezagutzea herriko hizkeraren berezitasunak eta, orokorrean, herriko curriculumak.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK

1	Hezkuntza-mahaia sortzea, besteak beste euskara sustatzeko lana elkarrekin egiteko.
2	Errefortzu-eskolak antolatzea ikasturtean zehar eta udan, bi eskolekin elkarlanean eta ikuspegi ludikoago batekin.
3	Harrera-plana diseinatu eta abiatzea, kanpotik Oriora datozenentzat.
4	EUSLIDER programa testatu eta abiatzea, gaztetxoek artean erabilera sustatzeko.
5	Material ludiko-pedagogikoak sortzea, herriko gaiekin.
6	Ikastetxeetan ahozkoitasuna indartzeko egitasmoak bultzatzea: «Ni ere bertsotan», ipuin-kontalariak, eztabaida-klubak, ahozko lanegiak...
7	Jolas-orduetan euskararen erabilera neurtzea, modu sistematikoan.
8	Laguntzak bideratzea errekurso gutxiak dituzten familiei, beren haurrak eskolaz kanpoko baliabide pedagogikoetatik kanpo ez geratzeko: musika-eskola, ludoteka, gaztelekua...
9	UEMAren hizkuntza-programa indartzea.
10	Gurasoak kontzientziatzeko lanak etengabea planifikatzea.
11	Esperientziaren Eskolarekin batera, adinekoen bisitak antolatzea ikastetxetara, herriko hizkeraren transmisioa indartzeko.
12	Jolas-orduen antolamenduaren azterketa egin, euskararen erabilera optimizatzeko.
13	Ikastetxetako euskararen normalizazio-planetako ekintzak diruz laguntzea.
14	Haur eta gaztetxoek erreferente euskaldunak sustatzea.

EUSKALDUNTZE- ALFABETATZEA

GAUR EGUNGO EGOERA

2015ean Udalak Orioko euskalduntze-alfabetatzea indartzeko apustu estrategikoa egin zuen. Aurrena, toki bat egokitu zen KTA eraikinean, Euskaltegiaren zerbitzuak aterpetzeko eta, ondoren, zerbitzuaren baldintzak definitu eta zerbitzua lehiaketa publikora atera zen. Geroztik, AEK-k kudeatzen du zerbitzu hori eta **euskaltegia erreferentzia bihurtu da euskara ikasi edo hobetu nahi duten oriotarrentzat.**

Euskaltegiko ikastaroak ez dira merkatu-prezioan eskaintzen, baizik eta askoz merkeago: 100 eurotan, ikastaroa edozein dela ere. Udalak hartzen du bere gain diferentzia.

Euskaltegiak aukera ematen du talde presentzialetan ikasteko eta, baita ere, autoikaskuntza bidez. Gaur egun ikasleen herenak baliatzen du autoikaskuntza-sistema euskara ikasteko, eta oso ondo baloratzen dute.

Hauek dira azken urteotako matrikulazio-datuak.

ORIOKO EUSKALTEGIA	
IKASTURTEA	IKASLE-KOPURUA
2015-16	82
2016-17	88
2017-18	72
2018-19	65
2019-20	51
2020-21	61
2021-22	63

Ikasle-kopurua hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa da eta, gainera, nahiko egonkor mantendu da azken zazpi urteotan. Ondorioz, euskaltegiak toki-arazoak ditu eta, sarri, KTA eraikineko beste gela batzuk —eta, inoiz, kultur etxekoren bat ere bai— erabili behar izaten ditu.

Mintzalagun programa

Mintzalagun programa Urola Kostako Udal Elkartetik kudeatzen da eta indarra hartu du eskualdean, bereziki Zarautzen. Orion, normalean, bizpahiru talde izaten dira martxan ikasturte bakoitzean, baina programak ez du erabat sendotzerik lortu.

Bestelakoak

Udalak eta euskaltegiak antolatu izan dituzte, ohiko ikastaroez gain, bestelako batzuk ere, euskararen irakaskuntzarekin lotutakoak:

- Etorri berriei zuzendutako Aisa ikastaroak.
- Hitanoa eta, bereziki, noka lantzeko ikastaroak.
- Euskaltzaindiaren arauetara buruzko ikastaroak.
- Idazten trebatzeko tailerrak.

Bukatzeko, Udalak dirulaguntzak eskaintzen dizkie herritarrei, Orioko euskaltegian ematen ez diren ikastaroak egiteagatik: udako ikastaroak, C2 mailakoak...



EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA



Herrian asko hobetu da euskalduntze-alfabetatzerako azpiegitura eta, gaur egun, euskara ikasi edo hobetu nahi duen herritarrak badu erreferentziazko tokia horretarako: Udalak diruz laguntzen duen AEKren euskaltegia.

Euskaltegiak izan duen harrera onaren ondorioz, hasieratik geratu zaio eskas Udalak prestatu zuen azpiegitura.

Euskaltegia erreferente bihurtu da, baita ere, herriko euskalgintzan, euskara sustatzeko jarduera eta ekitaldietan parte hartzen duelako (eragile aktibo nagusia da Korrikaren antolaketan eta parte-hartzaile garrantzizkoa Euskaraldian).

Mintzalagun programa martxan dago Orion, eskualde osoan bezala, baina ez du lortu indarra hartzea eta herritarren artean ezagutzera ematea.

Euskaltegiaren esparrua, berez, helduen euskalduntze-alfabetatzea den arren, azken urteotan, Udalak eskatuta, haur eta gaztetxoentzako errefortzu-eskolak ere eman ditu eta, beraz, lan-ildo berri bat sortu du.

Sare sozialetan eta, orokorrean, teknologia berrien esparruan, Euskaltegiak ez du indarririk hartu eta oso presentzia urria du.

Udalak diruz laguntzen ditu Orioko euskaltegiko ikastaroak, eta baita Oriotik kanpo herritarrek egiten dituztenak ere, Orion eskaintzen ez badira.

Jatorri atzeritarra duten eta, batez ere, jatorri atzeritarreko emakumeek bide zailagoa dute euskaltegira iristeko (informazioa iristen ez zaielako, ez dakitelako ez euskaraz eta ez gaztelaniaz, ordaindu ezin dutelako...)

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

HELBURUAK

1. Euskara ikasteko erraztasunak emango dituen azpiegitura indartzea.
2. Elebitasun pasiboa helduen munduan eta gutxieneko helburutzat areagotzea eta prestigiatzea.
3. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK

- | | |
|----------|---|
| 1 | Euskaltegiari egoitza berri egokiagoa topatzea. |
| 2 | Ulermena lortzera bideratutako ikastaroak prestatu eta eskaintzea. |
| 3 | Mintzalagun programa indartzeko ekintza osagarriak antolatzea: mintzodromoa, nokadromoa, euskaldun berrien ahalegina balioan jartzeko elkarriketak edo bideoak... |
| 4 | Aldiro, ikastaro bereziak eskaintzea: Euskaltzaindiaren arauak, idazkuntza lantzeko ikastaroa, Aisa ikastaroak, dendari eta tabernarientzako ikastaroak, hitanoa... |
| 5 | Euskaltegia eta herritarrak harremanetan jarriko dituzten ekintzak antolatzea. |
| 6 | Eskaintza zabaltzea, herritarrek euskararen ikaskuntza dela-eta dauzkaten premiak herrian bertan ase ahal izateko: C2 mailako ikastaroak, ikastaro berezituak... |
| 7 | Etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea. |
| 8 | Euskara ikasteko dirulaguntzak ematea herritik kanpo ikasten dutenei. |

ADMINISTRAZIOA

GAUR EGUNGO EGOERA

Udalak onartua dauka **euskararen erabilera-plana**, HPSrekin elkarlanean landu zuena, eta UEMAren bitartez egiten du horren jarraipena. **Euskararen erabilera asko handitu da Udalean** azken urteotan eta gaur egun euskaraz funtzionatzen du neurri handi batean.

Orioko Udala UEMako (**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea**) kide da 2002az geroztik eta horrek bultzada eman dio euskararen erabilerari erakundearen barruan.

Nolanahi ere, Udalak aurrerago egiteko aukera du orain, euskarazko funtzionamendua orokortuz eta sendotuz, azken urteotako lege-garapenek hizkuntza-eredu berri bat sortu baitute eta EAEko udalei tresnak eman baitizkiete euskara gehiago erabiltzeko.

Aipatzekoak dira, bereziki, bi lege-arau hauek:

- **2/2016 LEGEA**, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, apustu garbia egiten duena «euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde» udaletan.
- **179/2019 DEKRETUA**, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, lehenbizikoz arnaguneak definitzen dituena eta beren garrantzia aitortzen duena euskararen normalizazioan.



ADMINISTRAZIOA



Udalak martxan dauka euskararen erabilera-plana eta euskaraz funtzionatzen du neurri handi batean.

Kanpoko zenbait administrazioarekin (Eusko Jaurlaritzako Sail batzuekin edo Espainiako Gobernuko ordezkari batzuekin, adibidez) ez da beti erraza euskarazko komunikazioa bermatzea idatziz eta ahoz.

Udala UEMako kide da 2002z geroztik, eta horrek sendotasuna eta babesia ematen dio euskararen erabilera areagotzeko abiatu duen bideari.

Euskararen erabilera udal-administrazioan nahiko kontu berria da eta oraindik bide luzea du ibiltzeko; Orioren kasuan, bereziki, asko du hobetzeko erabiltzen den euskararen kalitateari dagokionez.

Udala ondo posizionatu da hizkuntza-teknologia berrien arloan eta euskaraz gehiago eta hobeto egiteko baliatzen ditu (Elia itzultzaile neuronalak, Aditu...)

Udalak aplikatu behar dituen hainbat lege, arau, jurisprudentzia... gaztelaniaz bakarrik daude eta horrek zailtasunak sortzen ditu eguneroko funtzionamenduan.

Udalean adostasun politiko handia dago euskararen erabilera sustatzeko Udalaren barruan zein kanpoan.

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERA

HELBURUAK

1. Orioko Udalak onartutako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak betetzea.
2. Hizkuntza-teknologia berriak baliatzea, Udaleko lanean euskaraz gehiago eta hobeto egiteko.

AURREIKUSITAKO JARDUERA

- | | |
|---|--|
| 1 | «Euskaraz, hobeto!» egitasmoa abian jartzea, teknologia berriak baliatuz euskara hutsez funtzionatzeko pausoak emateko. |
| 2 | Udal-langileen euskara-maila hobetzeko ikastaroak. |
| 3 | UEMAren laguntzaz, udal barruko euskararen erabilera-planaren segimendua egitea. |
| 4 | UEMAren laguntzaz, udal administrazioz kanpoko zerbitzuetan eragitea, euskararen erabilera sustatzeko (anbulatorioan, postetxean, beste administrazioetan...). |

ARLO SOZIOEKONOMIKOA

GAUR EGUNGO EGOERA

Orioko biztanleen hiru laurden zerbitzuen sektorean egiten du lan. Herrian bertan ez dago industria-sektore indartsurik eta, beraz, horretan ari diren oriotarrek herritik kanpo egiten dute lan.

Euskara enpresetan

Ez dago erabilera-plana martxan duen enpresarik Orion. Izan ere, apenas dagoen enpresarik herrian eta daudenak tamaina oso txikikoak dira.

Lan-ildo hau, enpresa-munduan euskararen erabilera bultzatzearena, Urola Kostako Udal Elkarteak landu du azken urteotan eskualdean; baina, oro har, ez du indar handirik hartu, nahiz eta Urola Kosta izan arlo honetan aurrerapausoak egiteko Euskal Herriko toki aproposenetako bat, bertako euskaldun-kopuruagatik eta euskararen aldeko joera orokorragatik.

Lan-munduan euskararen erabilera handitzea erronka handia da, Euskal Herrian bezala Orion ere. Daukan pisu estrategikoagatik, etorkizuneko lan-ildo garrantzitsuenetako bat izan behar du; eta gurean, nagusiki, horrek esan nahi du **turismoan eta merkataritzan** eragin behar dugula.

Orioko Biziberritze Plana

Orioko Udalak dokumentu bat landu eta onartu berri du, aztertzen duena datozen urteotan herria nola posizionatuko den turismoari eta, orokorrean, herriko jarduera ekonomikoari dagokionez: **«Orioko Biziberritze Plana»**. Plan integratzaile bat da eta arlo asko hartzen ditu kontuan: turismoa, merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak, herriaren historia eta errelatoa...

Plan horren barruan toki zentrala hartzen du euskarak, Orioko nortasunaren ikur eta elementu definitzaile gisa eta, hartara, etorkizunean oparoa izan daitekeen lan-ildo garrantzizko bat irekitzen du.

Turismoa. «Ongi etorri euskararen herrira!» kanpaina

2021ean abiatutako **«Ongi etorri euskararen herrira!»** kanpainak ere nabarmendu egiten du euskarak gure eskualdearen elementu definitzaile gisa duen garrantzia. Urola Kostako Udal Elkarteak koordinatzen du kanpaina, eskualdeko herrietako turismo-teknikariek bultzatuta euskara-teknikarien laguntzarekin. Eskualdera datozen turista eta bisitariak zuzendutako ekimena da eta elementu erakargarri gisa erabiltzen du gure herrien euskalduntasuna, nortasun-marka berezizat aurkeztuz.

Ekimen berritzailea da eta laguntzen du euskarari zentralitatea ematen eta euskararen aldeko pertzepzioak indartzen, bai bisitarien artean eta bai haiei zerbitzua ematen dieten herritarren artean.

Merkataritza Euskaraz

Udalak urte asko daramatza **«Merkataritza Euskaraz»** egitasmoa lantzen Orion; eta, ondorioz, aurrerapauso nabarmenak eman dira hainbat arlotan: paisaia linguistikoa (errotuluak, kartelak...), sentsibilizazioa, euskarazko materialak...


Ekimen eta jardunbide ugari izan dira egitasmo horren barruan: «Menuak Euskaraz» kanpainak, Euskalduntze Plan Integralak hainbat komertziotan, errotuluak euskaratzeko laguntzak, euskara-eskolak sektoreari bideratuta, hiztegi sektorialak argitaratzea, bisitak establezimenduetara, euskararen erabilera sustatzeko hitzarmenak herriko banketxeekin...

Euskararen egoera herriko denda eta tabernetan

Euskara Plana lantzeko antolatu diren lantaldeetako bat dendari, tabernari eta ostatu-jabeena izan da. Bertan egindako lanketari esker erretratua atera ahal izan diogu herriko gaur egungo egoerari. Hemen daude, laburbilduta, galdetegi bidez jasotako daturik garrantzizkoenak:

- Euskararen **ezagutza nahiko ona da** herriko denda eta tabernetan. Gutxi gorabehera, herriko batez bestekotan dabil, nahiz eta ostalaritzan baxuagoa den.


Zure establezimenduan, ba al dakite euskaraz jendaurrean lan egiten duten langileak?



- Galdetegiari erantzun dioten gehienek diote **euskararen egoera hobetu egin dela azken hamar urteotan** merkataritzan eta ostalaritzan. Batzuek diote egoera berdintsua dela eta inork ez du erantzun okerrera egin duenik.


- **Kanpoko errotulua** euskaraz edo bitara daukate galdetegiari erantzun dioten herriko denda eta tabernari ia guztiek:

Zure establezimenduan, zein hizkuntzatan daukazu kanpoko errotulu nagusia?




- Eta establezimendu barruko kartel, ohar eta abarrei dagokienez, hau da egoera:

Zure establezimenduan, zein hizkuntzatan daukazu barruko kartelak, oharak, prezio zerrendak eta abar?



- Establezimenduetako **euskararen egoera** 0tik 10era baloratzeko eskatuta, batez beste, 7tik gorako puntuazioa ematen diote galdetegia erantzun dutenek.


1etik 10era, zein da euskararen osasuna, gaur egun, Orioko merkataritza establezimenduetan, taberneta eta ostatuetan?



- Orioko dendari eta tabernariak, **euskara gehiago erabiltzeko zer zailtasun** dituzten galdetuta, hauek aipatu dituzte:
 - Euskararen ezagutza eskasa, langile batzuen aldetik
 - Idatziz ondo moldatzeko gaitasun-falta
 - Bezero asko erdaldunak izatea.
 - Gaztelaniaz egiteko joera, bai bezero batzuen aldetik eta bai dendari batzuen aldetik.
 - Ostalaritza arloan, bereziki, zailtasun handiak daude langile euskaldunak lortzeko (langileak lortzeko zailtasunak daude, orokorrean; eta are gehiago, euskaldunak kontratatu nahi izanez gero).


- Aurrera begira jarrita, dendari eta tabernariei galdetzen zaienean ea nola irudikatzen duten **euskararen etorkizuna Orioko merkataritza** arloan, ikuspegi baikorra erakusten dute, oro har, nahiz eta %15ek uste duen hemendik hamar urtera euskara orain baino gutxiago erabiliko dela:

Orioko denda, taberna eta ostatuetan, orokorrean, zer uste duzu gertatuko dela euskararen erabilerari dagokionez datozen hamar urteotan?



- Eta zer nahiko luketen galdetuta, berriz, erantzuna ia ahobatezkoa da: **ia guztiak nahi lukete orain baino gehiago erabiltzea**. Gainera, gehienak prest daude erabilera bultzatzeko ekimenetan parte hartzeko.


Eta, zer nahi zenuke gertatzea?



Parte hartuko zenuke Orioko merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko ekimen batean?

- Bai
- Beharbada
- Ez

%47,6



% 52,4



ARLO SOZIOEKONOMIKOA



«Merkataritza Euskaraz» programaren bidez egindako lan jarraituari esker, euskara idatziaren presentzia nabarmen handitu da denda eta tabernetan: errotuluak, menuak, oharrak...

Arlo sozioekonomikoan erabilera areagotzeko egindako ahaleginek, bereziki industria eta lantegiei dagokienez, fruitu eskasa eman dute orain arte.

Dendari eta tabernariak euskararekiko jarrera ona dute eta prest daude, oro har, euskara sustatzeko egitasmoetan parte hartzeko. Galdetegiari erantzun dioten guztiek esaten dute hemendik hamar urtera euskara merkataritzan orain baino gehiago erabiltzea gustatuko litzaiekeela.

Arloko langileei hizkuntza-prestakuntza emateko zailtasunak: sektorean dagoen mugikortasunagatik, ordutegi-arazoengatik, talde homogeneoak sortzeko zailtasunengatik...

Dendari eta tabernariak ondo baloratzen dute euskararen egoera herrian (7tik gorako puntuazioa ematen diote, 10 punturen gainean)

Ostalaritzako eta merkataritzako langile batzuen hizkuntza-prestakuntza falta.

Orioko dendari eta tabernariak, orokorrean, euskararen ezagutza-maila ona dute. Gutxi gorabehera, herriko ezagutza-mailaren parekoa.

Euskaldunen artean, ahoz, gaztelaniaz egiteko joera, bai bezero batzuen aldetik eta bai dendari batzuen aldetik.

Udalak hizkuntza-irizpideak ezarri dizkie bide publikoa terrazekin okupatzen duten tabernariei eta, ondorioz, herriko terrazetan bermatuta dago euskararen erabilera menu, ohar, arbel eta abarretan.

Udalak arlo honetan egindako lana ondo baloratzen den arren, sektoreak faltan bilatzen du lan sistematikoagoa eta jarraituagoa egitea.

Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, laguntza teknikoak ematen die dendari eta tabernariei, euskara gehiago eta hobeto erabiltzeko.

Ostalaritza arloan, euskarak atzera egin du azken 10 urteotan: zailtasunak langile euskaldunak lortzeko, kartelak-eta erdaraz, musika euskaldunak ez...

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

HELBURUAK

1. Orioko taberna eta jatetxeetan posible izatea kontsumizioak euskaraz eskatzea eta, oro har, euskaraz atenditua izatea, hamarretik bederatzitan.
2. Orioko denda, taberna eta ostatueta jendearentzat dauden ohar, kartel, menu eta abarrak euskaraz (edo euskaraz ere) egotea, hamarretik bederatzitan.
3. Establezimendu guztietan norbait egotea euskaraz dakiena edota, gutxienez, ulertzen duena.
4. Udalak itzulpena, aholkularitza eta hizkuntza-prestakuntza eskaintzea, modu sistematikoan, denda, taberna eta ostatu-jabeei, euskararen erabileran aurreratu dezaten.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK	
1	«Merkataritza Euskaraz» programa indartzea eta sistematizatzea, arloko jende guztiak izan dezan Udalak ematen duen laguntzaren berri.
2	Herriko denda, taberna eta ostatueta datu-basea osatu eta etengabe eguneratzea, bertan euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko datuak ere jasoz.
3	Euskarazko materialak sortzea eta Merkataritza Euskaraz kanpainaren barruan banatzea; urtero bat: posterrak, hitz eta espresioen zerrendak, mahai-zapi hiztegidunak...
4	Era jarraitu batean euskaraz trebatzeko ikastaroak eskaintzea sektoreko langileentzat.
5	Irekitzen diren establezimendu berriei banatzeko eskuorri bat prestatzea, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen berri emanez eta paisaia linguistikoa euskalduntzera animatuz.
6	Turismo aldetik, turistei begira iaz abiatu zen programari jarraipena ematea (ONGI ETORRI EUSKARAREN HERRIRA!)
7	Terrazen ordenantzako hizkuntza-irizpideak zorrotz betetzen direla etengabe kontrolatzea.
8	EUSKARALDIaren lanketarekin batera, herriko denda, taberna eta ostatueta Ariguneak sortzea, euskarazko jarduna errazteko.
9	UEMArekin batera, herriko banketxeetan euskararen erabilera sustatzeko hitzarmenen jarraipena egitea.
10	«Errenta-aitorpena euskaraz» kanpaina, urtero.
11	Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak ematea.
12	Jaurlaritzak merkataritza alorrean bultzatu nahi duen «marka berri bateratuaren» lanketa egitea herrian.

AISIALDIA

GAUR EGUNGO EGOERA

Txurrumuski aisialdi-elkartea da, gaur egun, haur eta gazteentzat jarduerak antolatzen dituen herriko talderik inportanteena. Bere ekintza guztiak euskaraz dira eta beti inplikatu izan da euskararen sustapenarekin lotutako gaitan. Eragile aktibo bat da.

Hizkuntza aldetik garrantzi gehien duen ekintzetako bat udako **Udaleku Irekiak** dira. Uztail-abuztuetan egiten da eta tresna bikaina da etxean euskara erabiltzen ez duten haurrek euskararekin harremanetan segitzeko udako hilabeteetan. Horrez gain, urtean zehar, Txurrumuski elkarteak jarduera ugari antolatzen ditu euskaraz haur eta gaztetxoentzat: asteburutako egonaldiak, txangoak, jolasak, inauteri-festa...

Txurrumuski elkarteak kudeatzen ditu, baita ere, haur eta gaztetxoentzat Udalak dauzkan bi baliabide garrantzizkoenak: ludoteka (haurren txikientzat) eta Gaztelekua (gaztetxoentzat).

Orion haur eta gazteentzat antolatzen diren eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz izaten dira ia beti: ekitaldiak, klase partikularrak, akademiak, dantza-ikastaroak...

Ikus-entzunezkoen kontsumoa

Ikus-entzunezkoen kontsumoa asko handitu da gure gizartean azken hamarkadetan eta, Orioko datu zehatzik ez dugun arren, zalantzarik ez da hala gertatu dela gurean ere: aisialdiko denboraren parte gero eta handiagoa pasatzen dugu denok ikus-entzunezkoak kontsumitzen eta nagusiki gaztelaniaz kontsumitzen ditugu.

Gazteen artean ere hori da joera, eta ikus-entzunezko edukiak gaztelaniaz (nagusiki) eta ingelesez (zerbait) kontsumitzen dituzte gaur egun: Espainiako youtuberrak, Latinoamerikako musika... Erreferentzia euskaldun gutxi dituzte.



AISIALDIA



Haur, nerabe eta gazteentzat Udalak antolatutako eskolaz kanpoko eskaintza eta ekintza guztiak euskaraz izan ohi dira.

Haur eta nerabeekin euskararen gaia berariaz lantzeko jarduera gutxi antolatzen dira.

Ludoteka eta Gaztelekua oso baliabide onak dira, bereziki etxean euskara jaso ez duten haur eta gazte oriotarrentzat.

Ludotekaren eta Gaztelekuaren zerbitzuak ez dira iristen horien «bezero» potentzial izan litezkeen guztiengana.

Haurrentzako aisialdiko eskaintza pribatuan (dantza-ikastaroak eta horrelakoak) ez dago guztiz ziurtatuta euskararen erabilera.

Haur eta gaztetxoek ikus-entzunezkoen kontsumoa, eta sare sozialetakoa, gaztelaniaz eta ingelesez da, neurri handi batean, eta gero eta denbora gehiago ematen dute horretan. Gainera, gero eta gazteago hasten dira horiek erabiltzen.

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

HELBURUAK

1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentziari eta erabilerari eustea.
2. Aisialdiko jardueretan parte hartzen duten haurren portzentajea gehitzea.
3. Eskaintza pribatuan ere euskarazko eskaintza bermatzea.
4. Euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa handitzea haur eta gaztetxoan artean.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK

1	Txurrumuskiko begiraleei prestakuntza eskaintzea, hizkuntzaren erabilera sustatzeko teknikei buruz.
2	Euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa sustatzeko jarduerak antolatzea, UEMAren elkarlanean.
3	Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartzea.
4	Jardueretan parte hartzeko arazo ekonomikoak dituzten haurrentzat dirulaguntzak bideratzea.
5	Aisialdiko eskaintza pribatuaren segimendu sistematikoa egitea.
6	Haurren bertso-eskola diruz laguntzea.
7	Eskolaz kanpoko jarduera ludikoak indartzea.
8	Txurrumuskik antolatzen dituen jarduerak diruz laguntzen segitzea.

KIROLA

GAUR EGUNGO EGOERA

Orion kirol-elkarte ugari dago (15 kirol-elkarte, 13 kirol-modalitate), antolaketa-maila eta tamaina oso desberdinekoak: oso egituratuak batzuk, eta ia-ia lagunartekoak beste batzuk. Nolanahi ere, kirol-elkarteen sare ederra dago herrian, jende asko mugitzen duena, bai antolakuntza-lanetan eta bai kirolari gisa.


Euskararen egoera Orioko kirol-taldeetan

Oro har, herriko kirol-elkarteen ustez, **euskararen egoera ona da Orioko elkarteetan**, nahiz eta, jakina, badauden hobetu litezkeen kontuak ere.

Euskara-plan hau lantzeko Udalak deitutako kiroleko lantaldean herriko kirol-elkarteen ordezkariak parte hartu dute (Arraun elkarte, Futbol elkarte, Muskuilu-Harri elkarte, Surf taldea, Sofbol taldea, Orio Eragin eskubaloi-taldea, Talai-Mendi mendi-elkarte, saskibaloi taldea, Pilota elkarte eta Aldapa zikloturismo-taldea) kiroldegiaren zuzendariarekin batera, eta lantalde horretarako sortutako galdetegiak datu interesgarriak utzi dituzte euskararen egoeraren inguruan:


- Orioko kirol-taldeetan **euskara hutsez egiten dira entrenamenduen %54,5** eta ele bitan gainerakoak (%45,5).

Zure talde/elkartean, zein hizkuntzatan egiten dira entrenamenduak?




- **Partida edo lehiaketetan, euskararen presentzia txikiagoa da** entrenamenduetan baino: euskaraz %36,4 egiten da. Partida edo entrenamendu gehienak (%63,6) bietara egiten dira (batzuekin euskaraz, beste batzuekin gaztelaniaz).

Zure talde/elkartean, zein hizkuntzatan jokatzen dira partidak edo lehiaketak?





- Orioko kirolariek euskaraz egiten dute nagusiki beren artean, kirol-jarduera egiten ari direnean: %54,5 euskara hutsean aritzen da eta gainerako %45,5, berriz, euskaraz eta gaztelaniaz.

Taldeko kirolariek zein hizkuntzatan egiten dute beren artean, taldeko jardueretan ari direnean?





- Herriko kirol-elkarteen **kartelak eta kanpora begirako informazioak (sare sozialak, prentsa-oharrak...), euskara hutsean zabaltzen dira, nagusiki (% 72,7).** Gainerako guztiak (% 27,3), ele bietan.

Zure talde/elkartean, zein hizkuntzatan publizitzen dituzue zuen ekintzak: kartelak, sare sozialak prentsa-oharrak...?




- Prestakuntza-saio eta ikastaroei dagokienez, egoera desberdina da: % 36,4k jasotzen ditu euskaraz; %54,5k ele bietan (batzuek euskaraz, beste batzuek gaztelaniaz); eta % 9,1ek, gaztelaniaz jasotzen du. Elkarre askok aipatu du **zailtasunak dituela euskarazko prestakuntza antolatzeko beren entrenatzaile eta jokalarientzat.**

Prestakuntza-saioak, hitzaldia edo horrelakoak antolatzen dituzuenengan, zein hizkuntzatan izaten dira?




- Zuzendaritza-taldeetan erabiltzen den hizkuntzari dagokionez, elkarteen % **63,6k erantzun du euskaraz egiten dituela bilerak-eta; %27,3k ele bietan egiten ditu; eta %9,1ek, gaztelaniaz.**

Zuzendaritza-taldeak zein hizkuntzatan egiten ditu bilerak?



- Elkarteen **barruko paperak (deialdiak, bilera-aktak, gutunak, kirolarien fitxak...) euskaraz egiten ditu elkarteen %45,5ek;** eta ele bietan, berriz, gainerako %54,5ek. Askotan, federazioekin eta kanpoko eragileekin zerikusia duten kontuak egiten dituzte gaztelaniaz edo bietara.


Elkarteen barruko paperak-eta (deialdiak, bilera-aktak, gutunak, kirolarien fitxak...) zein hizkuntzatan egiten dira?



- Azkenik, aurrera begira dauzkaten aurreikuspenak zein diren galdetuta, elkarrekin uste dute datozen hamar urteotan euskara gehiago edo antzera erabiliko dela Orioko kirolaren arloan (badago, hala ere, %20 bat uste duena hemendik hamar urtera euskara gutxiago erabiliko dela). Datu oso garrantzitsua da, bestalde, elkarrekin % 90ak adierazten duela euskara, Orioko kirolaren arloan, «orain baino gehiago» erabiltzea nahi lukeela; eta %10ak, berriz, dio «askoz gehiago» erabiltzea nahi lukeela. **Guztiek nahi dituzte, beraz, aurrerapausoak eman euskararen erabileran.**


Orioko kirolaren alorrean, orokorrean, zer uste duzu gertatuko dela euskararen erabilerari dagokionez datozen hamar urteotan?

- Orain baino askoz gutxiago erabiliko da
- Orain baino gutxiago erabiliko da
- Oraingo tankeran erabiliko da
- Orain baino gehiago erabiliko da
- Orain baino askoz gehiago erabiliko da



Eta, zer nahiko zenuke gertatzea?

- Orain baino askoz gutxiago erabiltzea
- Orain baino gutxiago erabiltzea
- Oraingo tankeran erabiltzea
- Orain baino gehiago erabiltzea
- Orain baino askoz gehiago erabiltzea



Laburbilduz, hasieran esan dugun bezala, Orioko kirol-elkarteetan nahiko ona da, oro har, euskararen egoera; baina ia guztietan dago hobetzeko tartea ere; bereziki, herritik kanpo egiten dituzten jardueretan eta prestakuntza eta ikastaroetan. Nabarmentzekoa da, bestalde, euskararen erabilera handitzeko elkarteek erakusten duten jarrera ahobatezkoa, horrek oinarri sendoa jartzen diolako aurrerantzean egin daitekeen lanari.

Euskaraz gehiago egiteko zein traba edo zailtasun dituzten galdetuta, hau erantzun zuten kirol-elkarteek:

- Federazio askok gaztelaniaz funtzionatzen dute (komunikazioak, aplikazio informatikoak...) eta horrek inertziak sortzen ditu, gainditzen zail direnak.
- Nagusiki hurrekin lan egiten duten elkarteetan ez dago aparteko arazorik jarduerak euskaraz egiteko eta hala egiten dira gehienetan. Helduekin lan egiten dutenetan, berriz, euskaraz egiteko traba izaten da bazkide batzuek euskara ez ulertzea.
- Haur eta gazte batzuek joera dute gaztelaniaz egiteko, nahiz euskaraz jakin.
- Kasu batzuetan, entrenatzaileek ez dakite euskaraz.
- Estatu mailako txapelketek pisu handia dute zenbait kirol-elkarteren jardueran eta horrek euskararen erabilera baldintzatzen du.

Karela kiroldegia

2002an ireki zen Karela kiroldegia Orion eta, pandemiarik gabeko egoera normalean, 1.800 abonatu inguru izatera iritsi da. Oso kopuru handia da eta, beraz, kiroldegia oso eremu garrantzizkoa da Orioko kirolzaleentzat. Herriko kirol-mundua euskalduntzeko, ezinbestekoa da kiroldegia dagokion garrantzia ematea.

Udalaren jabetzapekoa da Karela kiroldegia, baina horren kudeaketa azpikontratatua du. Gaur egun BPXport enpresak kudeatzen du kiroldegia eta, kontratuaren arabera, BPXportek Udalaren hizkuntza-irizpideak erabiliz kudeatu behar du kiroldegia.

Kiroldegiko jarduera gehienak euskaraz eskaintzen dira, baina badaude hobetu litezkeen kontuak ere:

- Zenbait kirol-jardueratarako irakasle edo monitore euskaldunak aurkitzeko zailtasunak daude.
- Erdarazko musika da nagusi gimnasioan eta zenbait jardueratan.
- Kiroldegiko zenbait langile eta monitoreren hizkuntza-maila hobetu daiteke.
- Azpiegitura informatiko guztia ez dago euskaraz.



KIROLA



Kirol elkarten sare sendo bat dago herrian eta haiek antolatutako ia ekintza guztiak euskaraz izan ohi dira: hitzaldiak, kirol-ekitaldiak, entrenamenduak...

Federazio askok gaztelaniaz funtzionatzen dute (komunikazioak, aplikazio informatikoak...) eta horrek inertiak sortzen ditu, gainditzen zail direnak.

Orioko kirol-elkarteek, oro har, euskaraz funtzionatzen dute: euskaraz egiten dituzte entrenamenduak, barruko lanak, zuzendaritza-batzordearen bilerak, aktak, kartelak...

Helduekin lan egiten duten kirol-elkarteetan, euskaraz egiteko traba izaten da bazkide batzuek euskaraz ez jakitea.

Kirol-elkarteek euskara gehiago erabiltzearen aldeko jarrera sendoa daukate eta, zailtasunak zailtasun, prest daude euskaraz gehiago egiteko pausoak emateko

Haur eta gazte batzuek joera dute gaztelaniaz egiteko, nahiz euskaraz jakin.

Kirol-elkarte batzuetako entrenatzaileek ez dakite euskaraz.

Estatu mailako txapelketek pisu handia dute zenbait kirol-elkarteren jardueran eta horrek euskararen erabilera baldintzatzen du.

Kirol-arloko prestakuntzaren arloa ez da oso euskalduna, oro har, eta zail izaten da euskarazko prestakuntza eta materialak lortzea

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

HELBURUAK

1. Udalak sustatutako edo diruz lagundutako kirol-jarduera guztiak, %100, euskaraz izatea.
2. Orioko haur eta gazte guztiek (0-24 urte) erabat euskaraz egitea beren kirol-jarduerak (entrenamenduak, partidak, bestelakoak...).
3. Orioko kiroldegia euskararen arnagune funtzional bihurtzea; alegia, guztiz euskaraz funtzionatuko duen gune bat izatea.
4. Kirol-maila guztietako entrenatzaile eta monitorea euskaldunak izatea eta beren lana euskaraz egitea.
5. Euskararen aldeko sentsibilizazioa lantzea.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK

1	Kiroldegia euskararen arnagune funtzional bihurtzeko lanketa egitea, kanpoko aholkularitza baten bidez. Ondoren, horren komunikazioa egiteko kanpaina antolatzea.
2	Sentsibilizazio-kanpaina indartsu bat abiatzea, Orioko kirol-munduko erreferente euskaldunekin, kirol-munduan euskaraz egiteko joera indartzeko.
3	Hainbat kirolezarako posterrak eta irudiak sortzea, hiztegi berezituaren erabilera zabaltzeko.
4	Prestakuntza eskaintzea kirol-entrenatzaile eta monitoreei hizkuntz(ar)en kudeaketari buruz.
5	Kirol-taldeek erabiltzen duten materiala euskaratzeko beka-deialdia.
6	Kirol-elkarteetan hizkuntza-irizpideak finkatzeko lanketa egitea.
7	Kirol-arloko prestakuntza eskaintzea euskaraz, arloz arlo.
8	Lanketa egitea, euskararen erabilera sustatzeko neurriak sartzeko kirol-taldeen dirulaguntzetarako irizpideetan.
9	Kirol-elkarteen euskarari buruzko datuak jaso eta eguneratzea, sistematikoki: euskararen ezagutza eta erabilera zuzendaritza-taldean, erabilera idatzia, entrenamenduetako erabilera...
10	Entrenatzaile eta monitorean euskara-maila hobetzea sustatzea.
11	UEMArekin elkarlanean, kirol-federazioetan eragiteko ekimena abiatzea.

KULTURGINTZA

GAUR EGUNGO EGOERA

Orio **herri bizia** da kulturegintzaren esparruari dagokionez, eta ekitaldi ugari antolatzen dira urtero, arlo askotakoak.

Herriko kultur etxea da Udalak antolatutako kultur ekitaldien ardatza; baina badira espazio fisiko gehiago ere: Salatxo aretoa, Arraunetxe, Kosta tailerra...

Herriko **kultur taldeek ia guztiz euskaraz antolatzen dute beren jarduna** eta ekitaldiak ere euskaraz izaten dira, salbuespenak salbuespen.

Azken urteotan, **«Euskaraz bizi-bizi»** programaren anparoan, asko ugaritu dira euskarazko kultur ekitaldiak Orion eta herritarren erantzuna ere ona izaten da halakoetan. Udalak kultur agenda aberatsa izaten du, euskaraz.

Literatur zaletasuna sustatzeko jarduerak

Udaleko Euskara batzordeak bi literatura lehiaketa antolatzen ditu urtero: bat, eskola-umeentzat; eta bestea gazte eta helduentzat.

Eskola-umeentzat antolatutako literatura lehiaketara aurkeztutako lanik onenak argitaratu egiten ditu Udalak liburu batean, apirila-maiatzean.

Udazken inguruan, berriz, **«Euskaraz Gazte» literatura lehiaketa** antolatzen du Udalak urtero, 16 urtetik gorakoentzat. Lan sarituak KARKARA aldizkarian argitaratzen dira gero, gehigarri batean.

Idazteko zaletasuna suspertzeko ahalegin horren barruan, **literatura tailerrak** antolatu izan ditu Udaleko Euskara batzordeak; baina, azken urteotan, ez da horrelakorik egin. Iaz, Urola Kostako Udal Elkarteko Euskara atalak hartu zuen bere gain lan-ildo hori eta udazkenean antolatu zuen literatura tailer bat, Orion, eskualde osoari zuzenduta.

Bestalde, udal-liburutegiak ipuin-kontaketa saioak antolatzen ditu hilero, urtean 9 saio, 3-8 urte arteko haurrentzat. Saio horiek ere haurrengan literaturarako gogo eta joera sortzeko ahaleginaren barruan kokatu daitezke.

Azkenik, Udalak, hainbat urtez, euskarazko liburuak irakurtzea bultzatzeko kanpaina egin du Orion (IGO: Irakurri, Gozatu eta Oparitu). Topagunearekin batera antolatu izan du Udalak, baina ez du inoiz arrakasta handirik lortu eta azken bi urteotan ez da egin.



KULTURGINTZA



Euskarazko kultur eskaintza sendoa egiten du Udalak.

Gero eta gutxiago diren arren, oraindik badago beren kultur jarduerak nagusiki gaztelaniaz egiten dituen herriko talderen bat.

Udalak herritarrentzat antolatzen dituen kultur jardura eta ekitatza ia guztiak euskara hutsez antolatzen dira: Musika Eskola, Ludoteka, Gaztelekua, hitzaldiak, kultur emanaldiak...

Udalak bultzatu ditu herriko gaiei buruzko argitalpenak, baina horien zabalpena mugatua da eta, gaur egun, ez daude erraz eskuratzeko moduan.

Kultur elkartearen sare sendoa bat dago herrian eta haiek antolatutako ia ekitatza guztiak euskaraz izan ohi dira: hitzaldiak, kultur ekitaldiak, entsaioak...

Euskarazko liburuen kontsumoa txikia da, proportzioan, udal-liburutegiaren maileguetan ikusten den bezala.

Festetan, barraka-gunean gaztelaniazko musika izaten da nagusi.

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

HELBURUAK

1. Herritarren euskarazko kultur sorkuntza handitzea.
2. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea.
3. Irakurzaletasuna bultzatzen jarraitzea.
4. Herriari buruzko informazioa guztion eskura jartzea.
5. Herriko festetan euskararen erabilera handitzea.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK

1	Euskarazko Wikipedian Oriori buruzko artikulua gehitzeko lantaldea osatzea.
2	Irakurle-kluba abian jartzea eta, oro har, literaturazaleasuna suspertzeko jarduerak bultzatzea: Bitartekarien irakurle-kluba...
3	Gaztetxo eta gazteentzako kultur ekitaldiak indartzea (Alkoholik gabeko diskoteka...).
4	Herriko gaiei buruzko euskarazko argitalpenak bultzatzea.
5	Kultur mahaia berreskuratzea eta kultur sorkuntza bultzatzeko erabiltzea.
6	Festetako barraketan euskarazko musika bermatzea.
7	Euskarazko kultur eskaintza zabala eskaintzen segitzea.
8	Eskola umeentzako literatur lehiaketa.
9	Euskaraz Gazte literatur lehiaketa.
10	Iparraldeko herriren batekin senidetzea lantzeko aukera aztertzea.
11	Dirulaguntza-oinarrietan euskararen erabilerari buruzko irizpideak txertatzea.

CORPUS-PLANGINTZA

GAUR EGUNGO EGOERA

Udaleko Euskara batzordeak **«Orioko Euskara»** izeneko liburua argitaratu zuen 1995ean. Herriko bi lagunek idatzi zuten liburua, batzordeak emandako beka bati esker. Lan mardul horretan Orioko euskararen berezitasunak jasotzen dira: aditz jokia, adierazpide bereziak...

1998an, bestalde, **herriko toponimoak** bildu eta horien idazkera normalizatzeko saioa egin zuen Euskara batzordeak. Emaizta mapa toponimiko batean argitaratu zuen Udalak eta, ondoren, herritarren artean banatu zen, buzoi guztietara. Ikermak enpresa arduratu zen toponimoen bilketaz, idazkeraren normalizazio proposamena lantzeaz eta mapa argitaratzeaz. Geroztik, mapa hori berriro egin da, 2017an, eta hainbat toponimo berrikusi dira.

2001ean **«Abizenak Euskaraz»** kanpaina abiatu zuen Euskara batzordeak aurreneko aldiz; eta, geroztik, hainbat aldiz berriro du, herritarrek beren abizen euskaldunak euskal grafiaz idatzi ditzaten lortzeko helburuarekin. Azken urteotan, UEMAren laguntzarekin bideratu du kanpaina.

2002an **«Hirekin Bai»** egitasmoa jarri zuen martxan Euskara-batzordeak. Horren barruan hikako hizkerari buruzko ikastaroak antolatu izan ditu, hikaren erabilera zuzena erakusteko eta bultzatzeko. Geroztik, Urola Kostako Udal Elkarteak ere antolatu izan ditu, eskualde osoko jendearentzat. Horrez gain, 2020an, 2021ean eta 2022an **noka ikastaroa** ere antolatu du Udalak, Orioko Emakumeen Ahalduntze Eskolarekin batera.

Udalak hasita dauka lan bat, bestalde, herriko zaharren hizkuntza-ondarea jasotzeko, **ahotsak.eus** webgunea kudeatzen duen Badihardugu elkartearekin elkarlanean.



CORPUS PLANGINTZA



Udalak lan bat egin dauka, herriko euskararen berezitasunak jasotzeko, eta, beraz, badago materiala gaiari buruz.

Haur eta gazteen artean hizkuntza higitzen ari den ustea gero eta zabalduago dago irakasleen artean: gaztelaniaren interferentziak, adierazpenerako zailtasunak, hikaren erabilera okerrak...

Udalak elkarlana abiatuta dauka Badihardugu elkartearekin, ahotsak.eus webgunean eta Udalaren webgunean Orioko hitzunen onen euskara dokumentatzeko.

Orokorrean, alor honetan egindako lanaren zabalpena eskasa da eta egindako lanari probetxu gehiago atera dakioke.

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

HELBURUAK

1. Ahozko adierazkortasuna zaindu eta indartzea.
2. Oriotarrok darabilgun euskararen kalitatea zaintzea.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK

- | | |
|---|---|
| 1 | «Orioko euskara» liburuaren edukiak Wikipedian eskura jartzea. |
| 2 | Ahozko hizkuntzaren corpusa jasotzeko programa indartzea (ahotsak.com). |
| 3 | Hika —eta, bereziki, noka— ezagutarazi eta erabiltzera bultzatzeko jarduerak indartzea. |
| 4 | Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatzen jarraitzea. |
| 5 | «Abizenak Euskaraz» kanpaina. |
| 6 | Erabileraren kale-neurketa egitea, bi urtez behin. |

HEDABIDEAK ETA IKT-AK

GAUR EGUNGO EGOERA

Karkara aldizkaria

KARKARA aldizkaria 1989an sortu zen Orion, herritarrei euskarazko informazioa emateko eta euskararen inguruan kontzientziatzeko. 2007az geroztik, webgune bat ere badu, www.karkara.eus, indar handia hartu duena eta egunero elikatzen dena. Orokorrean, aldizkariaren eta webgunearen artean, **eskaintza informatibo indartsua egiten dio Karkarak Orioko herriari** eta, gaur egun, herriko kontuez informatuta egoteko erreferentziazko tokia da.

2020ra arte KARKARA Taldea izeneko kultur elkarteak argitaratzen zuen aldizkaria, baina orain UKT (Urola Komunikazio Taldea) kooperatiba-elkarteak kudeatzen du, eskualdeko beste hainbat komunikabiderekin batera.

Urola Kostako Hitza eta Erlo telebista

2004an sortu zen Urola Kostako Hitza egunerokoa. Urola Kosta eskualdeko berriak jasotzen ditu euskaraz, asteartetik ostiralera, eta Oriori buruzko albiste eta elkarrizketak publikatzen ditu ia egunero. Ez dauka Karkararen hedadura, ez delako buzoi guztietara zabaltzen, baina harpidedun dezenteren etxeetara iristen da egunero.

Eskualdeko hedadura daukan Erlo telebistak ere indarra hartu du azken urteotan eta Oriori buruzko edukiak ere eskaintzen ditu.

Bai Urola Kostako Hitza eta bai Erlo telebista **UKT kooperatiba-elkarteak** kudeatzen ditu gaur egun eta Udalak diruz laguntzen ditu.

Horrez gain, Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa egunkariak badute Orioko berriak emateko atal bat eta hor albisteak bi hizkuntzetan argitaratzen dira: gaztelaniaz eta euskaraz.

Nazio mailako hedabideak

Euskara Zerbitzuak egindako azken neurketaren arabera, oriotarrek gaztelaniaz kontsumitzen dute, batez ere, eguneroko prentsa. Prentsa idatzia gero eta gutxiago kontsumitzen da orokorrean, eta Orion ere bai; baina, nolanahi ere, herrian erosten diren egunkari jeneralisten %6 baizik ez da euskarazkoa (Berria egunkaria) eta datu hori apenas aldatu den azken urteotan (%5ekoa zen orain dela 10 urte).

IKTak

Orioko Udala eta Elhuyar elkarlanean aritu dira 2020an Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako **UdalHizTek** izeneko proiektu pilotuan. Proiektuaren helburua hizkuntza-teknologia berriek udaletan izan dezaketen erabilera testatzea da. Proiektu horri esker Udala ondo posizionatu da hizkuntza-teknologien arloan eta abiapuntu ona dauka aurrerapauso gehiago egiteko.

Proiektu horren emaitza izan da, esaterako, Udalak bere webgune ofizialean (www.orio.eus) ezarritako **itzultzaile automatikoa**, tresna bikaina bihurtu dena Udalak bere komunikazio-politika erabat euskaraz egin ahal izateko. Itzultzaile automatikoak oso harrera ona izan du herritarren artean.

Etorkizunean garrantzi handia hartuko duen arloa da hau.



HEDABIDEAK



Komunikabide euskaldunen panorama argitu eta sendotu egin da eskualdean: UKT sortu da eta, gaur egun euskarazkoa da erreferentzia informatibo nagusia eskualdean, bai idatzizkoan, bai interneten eta bai ikus-entzunezkoetan.

Komunikabide idatzi nazionalak sarrera gutxi daukate Orion eta prentsa oraindik euskarri fisikoan kontsumitzen duen jende gehienarentzat, gaztelaniazkoa da erreferentzia.

Udalaren eta bi eskolen komunikazio-politika euskarazkoa da nagusiki.

Eskualdeko hedabideek ez dute lortu bisibilitate handirik sare sozialetan.

Herrian egindako ekitaldietako kartelak euskara hutsezkoak izaten dira normalean.

Telebistari dagokionez, ez dugu Orioko daturik, baina inpresioa da hemen ere erabatekoa dela gaztelaniazko hedabideen nagusitasuna.

Udala, UdalHizTek programa pilotuari esker, ondo posizionatuta dago hizkuntza-teknologien arloan.

Ikus-entzunezko kanal berriek (Netflix, HBO...) eta sare sozialek toki gutxi eskaintzen diote euskarari.

Sare sozialei esker, sekula euskaraz idatzi ez zuen jende asko hasi da bat-batean euskaraz komunikatzen.

Baliabide teknologiko asko eta asko gaztelaniaz eta ingelesez erabiltzen dituzte gazteek.

Euskaraz sortutako baliabide teknologikoen kopurua handia da.

Euskarazko baliabide teknologikoak ez dira behar beste ezagutzen eta ez dute lortzen behar luketen bisibilitaterik.

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

HELBURUAK

1. Eskualdeko euskarazko hedabideen garapen iraunkorra laguntzea.
2. Nazio mailako hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea.
3. Interneten euskarazko edukiak sustatzea.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK

1	Eskualde edo herri mailako komunikabideak diruz laguntzea.
2	Lantalde bat antolatzea teknologia berrien arloan egin daitezkeen jarduerak aztertu eta abian jartzeko: euskarazko bideo laburren lehiaketa, Tik-Tok lehiaketa...
3	Nazio mailako euskarazko komunikabide idatzien hedapena herrian laguntzea (astekariak, hilabetekariak, gazte aldizkariak, musikakoak...)
4	Udaleko iragarki eta informazioa kaleratzerakoan, euskarazko prentsa erabiltzea, lehentasunez.

SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA

GAUR EGUNGO EGOERA

Arlo honetan ahalegin ugari egin ditu Udaleko Euskara batzordeak azken urteotan. Aurrenekoa **«Euskaraz Gazte»** izeneko kanpaina izan zen, herriko gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin egindakoa.

Horrez gain, hitzaldi eta jardunaldiak antolatu izan ditu Udalak, euskararen inguruko sentsibilizazioa eta motibazioa lantzeko.

2012tik aurrera, helburu berarekin, **«Euskaraz bizi-bizi»** egitasmoa jarri zuen abian Udalak, herriko lagun eta elkarte batzuen laguntzarekin. Egitasmoaren barruan hainbat jarduera garatu ditu Udalak: 2013an grabatutako «Euskaraz bizi-bizi» bideoa, **«Aita, ama... kontu bat dut zuei esateko...»** programa, jardunaldiak, euskarazko kultur ekitaldiak... «Euskaraz bizi-bizi» programak indarrean segitzen du gaur egun, baina, batez ere, euskarazko kultur programa baten forma hartuta.

EUSKARALDIA

Hiztunen sentsibilizazioan eta motibazioan eragiteko programa nagusia EUSKARALDIA da gaur egun, Euskal Herri osoko hedadura duena eta Orion ondo sustraitu dena. 2018an egin zen EUSKARALDIAREN lehenbiziko edizioa, euskal hiztunen erabilera areagotzeko helburuarekin, eta arrakasta handia izan zuen Orion: ia 1.500 oriotarrek hartu zuten parte hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketan. EUSKARALDIA antolatzeke, lantalde sendo bat sortu zen Orion eta, gutxi-asko, lantalde horrek berak antolatu zuen 2020ko bigarren edizioa ere, COVID-19aren pandemiak pixka bat urardotu zuena.



SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA



Euskararen gaiarekin kontzientziatuta dagoen jende-multzo garrantzizkoa dago herrian, ondo prestatutako lagunez osatua eta prozesuari hauspo emateko prest dagoena.

Euskaldun askoren kontzientziazio-falta euskararen gaiarekin eta, ondorioz, gaztelaniaz egiteko joera

Arlo honetan orain arte egindako lana ondo baloratzen da.

Herritarren artean hizkuntza-ideologiari dagozkion kontzeptuak txertatzeko zailtasunak ditugu.

«Orioko Biziberritzeko Plan»ean ikusten den bezala, herritarrek oso sustraituta daukate euskara Orioren nortasunaren zati ezinbestekoa dela eta ontzat hartzen dute hizkuntza sustatzeko lana.

Euskararen gaiarekin kontzientziatuta dagoen jende-multzo handi bat dago, baina egituratu gabe eta eragiteko aukera erreal gutxirekin, EUSKARALDIAK eskaintzen duen aukera-leihotik harago.

2022-2032 ALDIRAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

HELBURUAK

1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea.
2. Kontzientziazio-kanpainak bultzatzea.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK

1	Herrian euskara-talde bat sortzeko lanketa egitea.
2	EUSKARALDIA antolatzea herrian, bi urtetik behin, hiztunen ahozko erabileran eragiteko.
3	KORRIKA antolatzea herrian, bi urtetik behin, hiztunen kontzientziazioan eragiteko.
4	Garabide elkartearekin elkarlanean, herrian hizkuntza-aniztasunari buruzko ekitaldiak antolatzea.

JARDUEREN KRONOGRAMA

JARDUERAK ARLOZ ARLO ETA URTEZ URTE

FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA		2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
1	«Haur berrien ongietorria» antolatzea urtero eta ekitaldi hori erabiltzea hizkuntzaren gaiari garrantzia emateko.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
2	Etxeko erabilerari buruzko datuak sistematikoki jasotzea, bi urtetik behin, ikastetxeen laguntzarekin.		.		.		.		.		.	
3	Euskarari buruzko hitzaldiak antolatzea Haurreskolako gurasoentzat.		.		.		.		.		.	
4	Haurreskolan gurasoentzat antolatzen diren jarduerak diruz laguntzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
5	Ludotekaren eta Gaztelekuaren zerbitzua indartzea.	.										
6	«Oriotarron hizkuntzak» egitasmoa abiatu Karkara aldizkariarekin batera, herrian dagoen hizkuntza-aniztasun berria ikustarazteko.	.										
7	Euskarazko Produktuen Katalogoa banatzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.

IRAKASKUNTZA		2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
8	Hezkuntza-mahaia sortzea, besteak beste euskara sustatzeko lana elkarrekin egiteko.			.								
9	Errefortzu-eskolak antolatzea ikasturtean zehar eta udan, bi eskolekin elkarlanean eta ikuspegi ludikoago batekin.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
10	Harrera-plana diseinatu eta abiatzea, kanpotik Oriora datozenentzat.			.								
11	EUSLIDER programa testatu eta abiatzea, gaztetxoek artean erabilera sustatzeko.		.									
12	Material ludiko-pedagogikoak sortzea, herriko gaiekin.		.		.		.		.		.	
13	Ikastetxeetan ahozkoahizkuntza indartzeko egitasmoak bultzatzea: «Ni ere bertsotan», ipuin-kontalariak, eztabaida-klubak, ahozko lantegiak...	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
14	Ikastetxeetan ahozkoahizkuntza indartzeko egitasmoak bultzatzea: «Ni ere bertsotan», ipuin-kontalariak, eztabaida-klubak, ahozko lantegiak...		.		.		.		.		.	
15	Laguntzak bideratzea errekurtsu gutxiko familiei, beren haurrak eskolaz kanpoko baliabide pedagogikoetatik kanpo ez geratzeko: musika-eskola, ludoteka, gaztelekua...	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
16	UEMAren hizkuntza-programa indartzea.			.								
17	Gurasoak kontzientziatzeko lanak etengabea planifikatzea.			.								
18	Esperientziaren Eskolarekin batera, adinekoen bisitak antolatzea ikastetxetara, herriko hizkeraren transmisioa indartzeko.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
19	Jolas-orduen antolamenduaren azterketa egin, euskararen erabilera optimizatzeko.				.							
20	Ikastetxetako euskararen normalizazio-planetako ekintzak diruz laguntzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
21	Haur eta gaztetxoek erreferente euskaldunak sustatzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA		2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
22	Euskaltegiari egoitza berri egokiagoa topatzea.				.							
23	Ulermena lortzera bideratutako ikastaroak prestatu eta eskaintzea.		.									
24	Mintzalagun programa indartzeko ekintza osagarriak antolatzea: mintzodromoa, nokadromoa, euskaldun berrien ahalegina balioan jartzeko elkarrizketak edo bideoak...	.		.		.		.		.		.
25	Aldiro, ikastaro bereziak eskaintzea: Euskaltzaindiaren arauak, idazkuntza lantzeko ikastaroa, Aisa ikastaroak, dendari eta tabernarientzako ikastaroak, hitanoa...	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
26	Euskaltegia eta herritarrak harremanetan jarriko dituzten ekintzak antolatzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
27	Eskaintza zabaltzea, herritarrek euskararen ikaskuntza dela-eta dauzkaten premiak herrian bertan ase ahal izateko: C2 mailako ikastaroak, ikastaro berezituak...	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
28	Etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.			.								
29	Euskara ikasteko dirulaguntzak ematea herritik kanpo ikasten dutenei.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
ADMINISTRAZIOA		2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
30	«Euskaraz, hobeto!» egitasmoa abian jartzea, teknologia berriak baliatuz euskara hutsez funtzionatzeko pausoak emateko.			.								
31	Udal-langileen euskara-maila hobetzeko ikastaroak.			.			.			.		
32	UEMAren laguntzaz, udal barruko euskararen erabilera-planaren segimendua egitea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
33	UEMAren laguntzaz, udal administrazioz kanpoko zerbitzuetan eragitea, euskararen erabilera sustatzeko (anbulatorioan, postetxean, beste administrazioetan...).	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.

ARLO SOZIOEKONOMIKOA		2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
34	«Merkataritza Euskaraz» programa indartzea eta sistematizatzea, arloko jende guztiak izan dezan Udalak ematen duen laguntzaren berri.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
35	Herriko denda, taberna eta ostatuen datu-basea osatu eta etengabe eguneratzea, bertan euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko datuak ere jasoz.		.									
36	Euskarazko materialak sortzea eta Merkataritza Euskaraz kanpainaren barruan banatzea; urtero bat: posterrak, hitz eta espresioen zerrendak, mahai-zapi hiztegidunak...	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
37	Era jarraitu batean euskaraz trebatzeko ikastaroak eskaintzea sektoreko langileentzat.	.		.		.		.		.		.
38	Irekitzen diren establezimendu berriei banatzeko eskuorri bat prestatzea, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen berri emanez eta paisaia linguistikoa euskalduntzera animatuz.	.										
39	Turismo aldetik, turistei begira iaz abiatu zen programari jarraipena ematea (ONGI ETORRI EUSKARAREN HERRIRA!)	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
40	Terrazen ordenantzako hizkuntza-irizpideak zorrotz betetzen direla etengabe kontrolatzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
41	EUSKARALDIaren lanketarekin batera, herriko denda, taberna eta ostatuetan Ariguneak sortzea, euskarazko jarduna errazteko.	.		.		.		.		.		.
42	UEMArekin batera, herriko banketxeetan euskararen erabilera sustatzeko hitzarmenen jarraipena egitea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
43	«Errenta-aitorpena euskaraz» kanpaina, urtero.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
44	Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak ematea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
45	Jaurlaritzak merkataritza alorrean bultzatu nahi duen «marka berri bateratuaren» lanketa egitea herrian.		.									

AISIALDIA		2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
46	Txurrumuskiko begiraleei prestakuntza eskaintzea, hizkuntzaren erabilera sustatzeko teknikari buruz.		.		.		.		.		.	
47	Euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa sustatzeko jarduerak antolatzea, UEMArekin elkarlanean.			.		.		.		.		.
48	Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartzea.		.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
49	Jardueretan parte hartzeko arazo ekonomikoak dituzten haurrentzat dirulaguntzak bideratzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
50	Aisialdiko eskaintza pribatuaren segimendu sistematikoa egitea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
51	Haurren bertso-eskola diruz laguntzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
52	Eskolaz kanpoko jarduera ludikoak indartzea.		.									
53	Txurrumuskik antolatzen dituen jarduerak diruz laguntzen segitzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.

	KIROLA	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
54	Kiroldegia euskararen arnagune funtzional bihurtzeko lanketa egitea, kanpoko aholkularitza baten bidez. Ondoren, horren komunikazioa egiteko kanpaina antolatzea.					.						
55	Sentsibilizazio-kanpaina indartsu bat abiatzea, Orioko kirol-munduko erreferente euskaldunekin, kirol-munduan euskaraz egiteko joera indartzeko.					.						
56	Hainbat kiroletarako posterrak eta irudiak sortzea, hiztegi berezituaren erabilera zabaltzeko.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
57	Prestakuntza eskaintzea kirol-entrenatzaile eta monitoreei hizkuntz(ar)en kudeaketari buruz.		.		.		.		.		.	
58	Kirol-taldeek erabiltzen duten materiala euskaratzeko beka-deialdia.			.		.		.		.		.
59	Kirol-elkarteetan hizkuntza-irizpideak finkatzeko lanketa egitea.		.									
60	Kirol-arloko prestakuntza eskaintzea euskaraz, arloz arlo.			.		.		.		.		.
61	Lanketa egitea, euskararen erabilera sustatzeko neurriak sartzeko kirol-taldeen dirulaguntzetarako irizpideetan.	.										
62	Lanketa egitea, euskararen erabilera sustatzeko neurriak sartzeko kirol-taldeen dirulaguntzetarako irizpideetan.		.			.			.			.
63	Entrenatzaile eta monitoreen euskara-maila hobetzea sustatzea.		.			.			.			.
64	UEMArekin elkarlanean, kirol-federazioetan eragiteko ekimena abiatzea.			.								

KULTURGINTZA		2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
65	Euskarazko Wikipedian Oriori buruzko artikuluak gehitzeko lantaldea osatzea.		.									
66	Irakurle-kluba abian jartzea eta, oro har, literaturazaleasuna suspertzeko jarduerak bultzatzea: Bitartekarien irakurle-kluba...		.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
67	Gaztetxo eta gazteentzako kultur ekitaldiak indartzea (Alkoholik gabeko diskoteka...).		.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
68	Herriko gaiei buruzko euskarazko argitalpenak bultzatzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
69	Kultur mahaia berreskuratzea eta kultur sorkuntza bultzatzeko erabiltzea.	.										
70	Festetako barraketan euskarazko musika bermatzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
71	Euskarazko kultur eskaintza zabala eskaintzen segitzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
72	Eskola-umeentzako literatur lehiaketa.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
73	Euskaraz Gazte literatur lehiaketa.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
74	Iparraldeko herriren batekin senidetzea lantzeko aukera aztertzea.		.									
75	Dirulaguntza-oinarrietan euskararen erabilerari buruzko irizpideak txertatzea.	.										

CORPUS-PLANGINTZA		2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
76	«Orioko euskara» liburuaren edukiak Wikipedian eskura jartzea.		.									
77	Ahozko hizkuntzaren corpora jasotzeko programa indartzea (ahotsak.com).	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
78	Hika —eta, bereziki, noka— ezagutarazi eta erabiltzera bultzatzeko jarduerak indartzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
79	Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatzen jarraitzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
80	«Abizenak Euskaraz» kanpaina.			.			.			.		
81	Erabileraren kale-neurketa egitea, bi urtez behin.		.		.		.		.		.	
HEDABIDEAK ETA IKT-AK		2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
82	Eskualde edo herri mailako komunikabideak diruz laguntzen jarraitzea.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.
83	Lantalde bat antolatzea teknologia berrien arloan egin daitezkeen jarduerak aztertu eta abian jartzeko: euskarazko bideo laburren lehiaketa, Tik-Tok lehiaketa...	.										
84	Nazio mailako euskarazko komunikabide idatzien hedapena herrian laguntzea (astekariak, hilabetekariak, gazte aldizkariak, musikakoak...)				.							
85	Udaleko iragarki eta informazioa kaleratzerakoan, euskarazko prentsa erabiltzea, lehentasunez.			.								

SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA		2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032
86	Herrian euskara-talde bat sortzeko lanketa egitea.		.									
87	EUSKARALDIA antolatzea herrian, bi urtetik behin, hiztunen ahozko erabileran eragiteko.	.		.		.		.		.		.
88	KORRIKA antolatzea herrian, bi urtetik behin, hiztunen kontzientziazioan eragiteko.	.	.		.		.		.		.	
89	Garabide elkartearekin elkarlanean, herrian hizkuntza-aniztasunari buruzko ekitaldiak antolatzea.		.		.		.		.		.	





ORIOKO
EUSKARA-PLANA
2022-2032

2022ko martxoa